

Informatikari Euskaldunen II. Topaketak izango dira hurrengo ostiralean Donostian

'Euskara eta Internet' izenburupean, 100dik gora profesional bilduko dira Miramarren

Udako Euskal Unibertsitateak antolatuta, Informatikari Euskaldunen II. Topaketak izango dira hurrengo ostiralean Donostiako Miramar jauregian, *Euskara eta Internet* izenburupean. Egun horretan, pil-pilean dagoen gai horren inguruko komunikazio, hitzaldi, mahai-inguru eta erakusketak izango dira Gipuzkoako hiruburuan.

I. Petxarroman / Donostia

ORAIN DELA bi urte izandako informatikari euskaldunen lehen topaketak lortu zuen arrakasta eta parte hartze handiaren ondoren, antolatzaileek erabaki zuten errepikatu egin behar zutela esperientzia, eta bi urtean behin egitea deliberatu zuten.

Xabier Artola antolatzaileak adierazi zuenez, duela bi urte hitz hauen bidez aurkeztu zituzten topaketak: «Ordenadoreak, Internet, datu baseak, editoreak... Mundu berria ageri zaigu aurrean. Makinen garaia datorkigula dirudi: kultura berria? kultura bakarra? ingelesa nagusi?». Lehen topaketak antolatzea erabaki zutenean, beldurrez ziren jasoko zuten erantzuna zela-eta, baina 130 aditu eta profesional biltzea lortu zuten, eta horrek konfiantza handia eman zien aurrera begira bide beretik segitzeko.

Bigarren topaketotan beste galdera batzuk izango dira mahai gainean ditu: «Ezer aldatu al da ordutik hona? Euskarazko software-a ugartu al da? Egin ote du aurrera gure hizkuntzak Interneten?».

Azken hori izango da, hain justu ere, topaketen hari nagusia:



Nestor Garai, Olatz Arbelaiz eta Xabier Artola, UEuko Informatika Saileko kideak.

ANDER GILLENIA

Baina informatikan euskaraz aritu nahiak berekin dituen hainbat konturik ere lekua izango du. Hala ere, antolatzaileek argi utzi zuten topaketen helburu nagusia *software*ak, teknikariak, unibertsitariak... biltzea. 180 pertsonentzako gela alokatu dute, eta parte hartu nahi duenari lehenbailehen matrikula egiteko eskatu diote, lekua mugatua baita.

Egun bateko programa • Egun osoan zehar komunikazioak, hitzaldiak eta mahai-inguruak izango dira. Goizeko 09:30etan emango diete hasiera topaketei eta ordu laurden beranduago Xabier Arregi irakasleak lehen hitzaldia emango du: Armiamark euskaraz

baleki. 10:30etan, Iñaki Zabaleta EHuko irakasleak Euskararen unibertsitatea eta informatika: mesedeak, erabilerak eta mugak izeneko komunikazioa aurkeztuko du, eta ondoren J. Gereka GIEko kideak Software kurrikularraren garrantziaz arituko da.

Atsedean txiki baten ondoren, Hezkuntza Saileko Orixe taldeak bi komunikazio aurkeztuko ditu eta EHuko hainbat irakasle euskarazko mintzo-ezagutze automatikorako sistema baten deskribapena egingo dute.

Azken komunikazioak 13:00ean hasiko dira IXA taldearen eta EHEITE J. Garatearen eskutik. Azken horrek, hain zuzen ere, gutxiengo hizkuntzak, internet eta industrien elkartearen garrantziaz mintzatuko da.

Bazkal ostean, 16:00etan beste bi komunikazio izango dira, Mondrago Sistemas S.C eta Ametzagaña taldearen eskutik. 16:45etan Luis Fernandez UEuko Informatika Saileko kideak *Euskara eta Internet: lagunok, tren gaitezketan gaude* izeneko hitzaldia emango du. Egunari bukaera emango diote mahainguru batekin: *Internet hornitzaileak: etorkizunerako estrategiak*.

Bidenabar, Euskal Softwarearen Katalogoa ikusgai izango da bi geletan, eta 16 produktu aurkeztuko dira bertan.

Mikel Aizpuru UEuko zuzendariak topaketen duten garrantzia azpimarratu zuen, eta esan zuen erakusten egiten duten lana ez dela udara mugatzen. X

Javier Gomez:
«Oinarritzko sexologia heziketa oso apala da, mendeetan isilarazi baita»

■ Sexologiako Adituen Elkarte V. Biltzarra egiten ari da egunotan Bilbon

Gorane Agirre / Bilbo

«MENDEETAN isilarazi egin denez, egungo gizartearen oinarritzko sexologia heziketa oso apala» dela adierazi zuen Javier Gomez Zapiain EHuko irakasleak atzo Bilbon hasi zen Sexologia Kongresuan izan zuen agerraldian. Psikologo horrek Emakumezkoa eta gizonezkoa etorkizunean gaia jorratu zuen.

Sexuen etorkizuna «gizarteak gizon izatea eta emakume izatea zer den ulertzean» datzala nabarmendu zuen Gomez Zapiain psikologoak. Gainera, hedabideen bidez zabaltzen diren edukiak eta kultura aldatzeko eskatu zuen.

EHuko irakasleak azpimarratu zuenez, «etorkizunean emakumeek eta gizonek aukera eta eskubide berdintasuna izatea espero dut, baina sekula ezingo gara berdina izan psikologikoki. Eta hori lortzea gizabanakoen arrakasta izango litzateke, aberastasuna ezberdintasunean dagoelako. Hurrengo menderako bidea zabaltzeko ezinbestekoa da diskriminaziorik eta esplotaziorik ez izatea, eta gizonezkoaren eta emakumezkoaren adierazpen askea bermatzea».

Sexologiako Profesionalen Espainiako Elkarteak antolatutako *Emakumeak eta gizonek milurtekorantz lelopeko* Kongresua, eta bihar bukatuko da. Guztira, 250 sexologo ari dira parte hartzen. Bertan, ekintza sexualaren alde sozial, psikologiko, biologiko, erotikoa, kliniko eta hezkuntza mailakoak eztabaidatuko dituzte.

Antolatzaileek nabarmendu zuten, «jardunaldiotan sexu bien izateaz eztabaidatuko dugu; izan ere, sarri asko isilarazten da begi-bistak egitate bat; pertsonak gizonak edo emakumezkoak direla. Eta ezberdintasun gehiago dituzte berdintasunak baino. Ondorioz, nolakoak diren, nola eragiten dioten elkarri eta haien etorkizuna zein izan daiteke eztabaidatuko dugu».

Biltzar horretako komunikazio guztietan mezu bat nagusituko dela azaldu zuten, alegia, «saihestu ezin den gure sexutasuna ezagutu eta onartzeko premia». Ildo horretatik, haxe azpimarratu zuen: «Gure indibidualtasuna, aniztasuna eta ezberdintasuna onartu eta ezagutu behar dugu, horretan oinarrituko baita etorkizun harmonikoa eraikitzeko gaitasuna». X

Hego Euskal Herritik Ipar Euskal Herrira telefonoz deitzeko zenbakiak aldatu egingo dira gaurtik aurrera

■ Telefono mugikorretan ere, orain arte hasieran erabiltzen zen 9a ez baizik 6a sakatu beharko da

Europa Press / Madril

GAURTIK aurrera aldatu egingo dira Hego Euskal Herritik Ipar Euskal Herrira eta nazioartera egiten diren telefono deiak eta telefono mugikorretako dei guztiak. Telefono mugikorretako deiak dagokionez, lehen 9 zenbakiarekin hasten ziren dei guztiak, eta gaurtik 6rekin hasiko dira.

Berritze horrek aukera emango du telefono horietarako ehun milioi zenbaki gehiago izateko. Espainiako Numerazio Planak beharrezkotzat jo ditu zenbaki horiek, bai egun diren operadorei zerbitzua emateko, eta baita aurrerantzean merkatura sartuko diren beste operadore batzuei emateko ere: Retevision Movil, esaterako.

TELEFONO ZENBAKI ALDAKETA			
► Telefono mugikorrak			
LEHEN		GARTIK AUERRERA	
9	X	6	X
► Hegoaldetik Iparraldera eta nazioarteko deiak			
LEHEN		GARTIK AUERRERA	
0	7	0	0

Telefonicari dagokionez, bezeroen zenbakiak aldatzeari ekin dio jada. Horrela, Movilineko aurre-zenbakiak 608 eta 689 izango

dira aurrerantzean, eta GSM Movistar zerbitzukoak, berriz, 609, 619, 629, 639, 649 eta 630.

Prozesua bi fasetan beteko du-

te. 1999ko urtarrilaren 23a arte deiak egin ahal izango dira bai egungo zenbakiarekin bai zenbaki berrieekin. Egun horretatik aurrera, berriz, 9rekin hasten diren deiek ez dute baliorik izango, eta ahots batek horren berri emango die oker deitzen duten pertsonari. Telefonika eta Airtelek publizitate kanpaina bat egingo dute aldaketan berri emateko bezeroei.

Bestalde, nazioartetik eta Hego Euskal Herritik Ipar Euskal Herrira egiten diren deien kasuan ere aldaketa izango da gaurtik. Orain arte 07 aurre-zenbakia erabiltzen zen, eta hemendik aurrera, berriz, 00 aurre-zenbakia erabili beharko da.

Retevision erabiltzen duten bezeroen kasuan, ez dute aldaketa egin beharrik izango. X